

→ IRAKURRI ETA GALDERAK ERANTZUN:



BILLOBA

AMONA

Baina katea gustatzen zait, marrazki bizidunak ematen dituztelako	Telebistako zein saio gustatzen zaizu gehien?	Telesailak ikustea gustatzen zait.
Ez dut izenburua gogoratzen, Geronimo Stiltonen liburuak gustatzen zaizkit.	Irakurri duzun azken liburua?	"Lo que el viento se llevo" irakurtzen ari naiz orain. Etxean ez dut astirik izaten, baina plazan gustura irakurtzen dut.
Titanic etxean atzean dagoen parkea. Han egoten gara lagunekin.	Elgoibarko zein leku gustatzen zaizu gehien?	Plaza. Elgoibarko lekuri politena iruditzen zait.
Bai, futboleak jokatzen dut bereziki. Athletic zalea naiz.	Egiten duzu kirola?	Bai, zumba egiten dut. Apur bat galduta ibiltzen naiz baina gustura
Futbol zelaia berria egitea. Orain hasi dira obrak era ondo geratuko da.	Zer eskatuko zenioke Elgoibarko alkateari?	Urazandirako igogailuren bat. Auzo horretan senideak ditut eta uste dut pixka bat lagata dagoela.
Elurra! Elur pilotak egitea eta lagunekin jolasten oso ondo	Elurra ala eguzkia nahiago duzu?	Eguzkia. Niri elurra ez zait inoiz gustatu, umetan ere ez.

pasatzen dut.		
Norbaitek sustoa ematen didanean beldurtu egiten naiz.	Zerk ematen dizu beldurra?	Errepideak. Etxekoek bidaian joaten direnean kezkatuta egoten naiz.
Futboleko albisteren bat. Athletic.ek liga irabazi duela entzutea ondo egongo litzateke	Irratia piztean. Zein albiste entzun nahiko zenuke?	Irratian ez ditut albisteak entzuten, musikaj entzutea gustatzen zait. Etxeko lanak egiteko beti jartzen dut musika.

1. Zer nolako programak ikusten dituzte telebistan?

- A. Kirolak.
- B. Txapelketak.
- C. Denbora pasatzeko programak.
- D. Albisteak edo informazioa ematen dituztenak.



2. Kirola egiten al dute?

- A. Bai, biek.
- B. Bai, futbola.
- C. Ez; galduta dabilta gai horretan.
- D. Zaleak dira baina haiek ez dute egiten.

3. Bilobak futbol zelai berria nahi du eta amonak igogailu bat. Nori eskatuko liokete?

- A. Familiari.
- B. Auzoko elkarteari.
- C. Elgoibarko alkateari.
- D. Elgoibarko bizilagunei.

4. Zelako informazioa ematen da testuan?

- A. Albisteak.
- B. Iritzi pertsonalak.
- C. Gai batzuei buruzko azalpenak.
- D. Gai batzuei buruz alde edo aurkako arrazoiak.

5. Erreparaiozu bi argazkien artean dagoen galdera ikurrari. Zer adierazten du?
- A. Zer erantzungo duten ez dakigula.
 - B. Oso erantzun harrigarriak eman dituztela.
 - C. Iraitzek eta Belenek ez dakitela zer erantzun.
 - D. Asmatu behar dugula nork egin duen galdetegia.
6. Zure ustez, zertarako egin dizkiete galderak ume bati eta amona bati?
- A. Adineko jendea kirola egiten animatzeko.
 - B. Herritarren zaletasunen zerrenda osatzeko.
 - C. Adin desberdinetako pertsonen interesak azaltzeko.
 - D. Familiako kideen arteko desadostasunak agerian uzteko.